Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

BALDINTZA-AGIRIA, TXALTXA ZELAIKO PLAZA BIEN (EPAITEGI ONDOKOA ETA JUBILATUEN GAINEKOA) APROBETXAMENDU BEREZIAREN BAIMENA ADJUDIKATU ETA 2023KO EKAINAREN 7TIK 27RA (EGUN BIOK BARNE) BARRAKAK JARTZEKO.

PLIEGO DE CONDICIONES PARA LA ADJUDICACION DE LA AUTORIZACIÓN DEL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DE LAS PLAZAS DE TXALTXA ZELAI (JUNTO AL HOGAR DEL JUBILADO Y JUNTO AL JUZGADO) PARA LA INSTALACIÓN DE ATRACCIONES DE FERIA ENTRE LOS DIAS DIAS 7 Y 27 DE JUNIO DE 2023, AMBOS INCLUSIVE.

1. XEDEA ETA IZAERA.

Baimenak Txaltxa Zelaiko plaza bien (Epaitegi ondokoa eta jubilatuen gainekoa) aprobetxamendu berezia du xede, eta 2023ko ekainaren 7ko arratsaldeko 5etatik hilaren 27ra barrakak jartzeko da. Baldintza-agiri honetan ezartzen da barrakak nola jarri behar diren —erantsitako planoan azaltzen da lekua— eta zer baldintza bete behar den.

Barraka-esparru osoaren adjudikazioa egingo da eta adjudikaziodunaren kargu geratzen da bertako postuak banatzea.

1. OBJETO Y NATURALEZA.

El objeto de la autorización es el aprovechamiento especial de las Plazas de Txaltxa Zelai (junto a Hogar de Jubilado y junto a Juzgado) para la instalación de atracciones de feria entre los días 7 (a partir de las 17:00 horas) y 27 de junio de 2023, ambos inclusive, en la forma y con las condiciones que en el presente pliego se establecen y en el espacio que se indica en el plano anexo al presente Pliego de Condiciones.

La adjudicación lo será de todo el recinto ferial, siendo a cuenta del adjudicatario la distribución de puestos dentro del mismo.

2. UDALARI ORDAINDUKO ZAION KANONA:

Udalari ordaindu behar zaion **10.000 euroko** gutxieneko kanona ezartzen da. Lizitatzaileek zenbateko hori goratu dezakete eskaintzetan.

2. CANON A ABONAR AL AYUNTAMIENTO.

Se establece un canon mínimo a abonar al Ayuntamiento de **10.000 €.** Los licitadores podrán mejorar ésa cantidad en sus ofertas.

3. APROBETXAMENDU-BAIMENAREN LUZAPENA.

Ez dago luzapenik.

3. PRORROGA DE LA AUTORIZACIÓN DEL APROVECHAMIENTO.

No procede prórroga.

4. ADJUDIKAZIOA OINARRITZEKO IRIZPIDEAK ETA IRIZPIDEEN HAZTAPENA

Ondorengoak dira adjudikazioa oinarritzeko irizpideak eta irizpideon haztapena:

Hobekuntzak barraketako prezioetan: 40 puntu

Barraketako batez besteko preziorik merkeenari 40 puntu emango zaizkio. Hortik aurrera hiruko erregela bat aplikatuko da gainerako puntuazioetarako proportzionaltasun hutseko irizpideekin, zehazteko: “baldin eta Ari 40 puntu badagozkio, Bri X egokituko zaizkio, non eta X A-ren berdina izango baita, 40ekin biderkatuta eta Brekin zatituta”.

4. CRITERIOS QUE HAN DE SERVIR DE BASE A LA ADJUDICACION Y SU PONDERACION.

Los criterios que han de servir de base a la adjudicación, y su ponderación, son los siguientes:

Mejoras en los precios de las atracciones: 40 puntos.

Al menor precio medio de las atracciones se le darán 40 puntos . A partir de ahí se aplicará una regla de tres para determinar, con criterios de proporcionalidad pura el resto de las puntuaciones, del tipo “si a A corresponden 40 puntos a B corresponderán X, y donde X será igual a A por 40 partido por B”.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c** Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809** **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

Hobekuntzak Udalari ordaindu behar zaion kanonean: 25 puntu

Udalari ordainduko zaion zenbateko handienari 25 puntu emango zaizkio. Hortik aurrera hiruko erregela bat aplikatuko da gainerako puntuaketetarako proportzionaltasun hutseko irizpideekin, zehazteko "baldin eta Ari 25 puntu badagozkio, Bri X egokituko zaizkio, non eta X bren berdina izango baita, 25ekin biderkatuta eta Arekin zatituta".

Hobekuntzak barraketako prezioetan "Umeen egunetan": 10 puntu

Preziorik txikienari 10 puntu emango zaizkio. Hortik aurrera hiruko erregela bat aplikatuko da gainerako puntuazioetarako proportzionaltasun hutseko irizpideekin, zehazteko: "baldin eta Ari 10 puntu badagozkio, Bri X egokituko zaizkio, non eta X A-ren berdina izango den, 10ekin biderkatuta eta Brekin zatituta".

5. PARTE HARTZEKO GAITASUNA

Adjudikazio-prozedura honetan parte hartu ahal dute gaitasun juridiko osoa duten pertsona fisikoek eta juridikoek, baldin eta azokalari industrialak eta azokalarien elkarte badira eta ez bazaie ezarri Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko 49. artikuluan kontratatzeko ezarritako debeku horietako bat bera ere.

6. BAIMENAREN IRAUPENA

Baimena ekainaren 7tik 27ra bitartekoa da, egun biok barne.

Muntaketa ekainaren 7tik (arratsaldeko 5etatik aurrera) eta 12ra bitartean egingo da (egun biok barne). Barraka guztiak erretiratuta egongo dira ekainaren 27rako.

Barraken ordutegiak hauek izango dira:

- Astelehenetik ostiralera: 16:00etatik 22:00etara: barraka eta etxola guztiak.
- Zapatu, domeka eta jaiegunetan: Txurreria, bokateria eta antzekoak: 8:00etatik 15:00etara. Barrakak: 11:00etatik 15:00etara. Barraka eta etxola guztiak: 16:00etatik 24:00etara.
- Musika 21:30ean kenduko da astelehenetik ostiralera; zapatu eta domeketan 23:00etan.
- Musika ekainaren 16an eta 17an kontzertuak irauten duten bitartean kenduko da
- Jai-egitarauko egunetan goizaldeko ordu batak arte luza daitezke (1:00) ordutegi horiek, edo Udalak prestatutako jai-egitarauko ikuskizunak amaitu arte.

Mejoras al canon a abonar al Ayuntamiento: 25 puntos.

Al mayor importe a abonar al Ayuntamiento se le darán 25 puntos. A partir de ahí se aplicará una regla de tres para determinar, con criterios de proporcionalidad pura el resto de las puntuaciones, del tipo "si a A corresponden 25 puntos a B corresponderán X, y donde X será igual a B por 25 partido por A"

Mejoras en los precios de las atracciones en los "días infantiles": 10 puntos

Al menor precio se le darán 10 puntos. A partir de ahí se aplicará una regla de tres simple e inversa para determinar, con criterios de proporcionalidad pura el resto de las puntuaciones, del tipo "si a A corresponden 10 puntos a B corresponderán X, y donde X será igual a A por 10 partido por B"

5. CAPACIDAD PARA CONCURRIR

Podrán participar en el procedimiento de adjudicación las personas físicas o jurídicas que tengan la condición de industrial feriante o asociación de feriantes, que tengan plena capacidad de obrar y que no se hallen incursas en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en la Ley de Contratos del Sector Público.

6. DURACION DE LA AUTORIZACION

La autorización se concederá entre los días 7 y 27 de junio ambos inclusive.

El montaje de las atracciones se realizará entre los días 7 (a partir de las 17:00 horas) y 12 de junio, ambos inclusive. La retirada de las atracciones deberá estar completada para el día 27 de junio.

Los horarios de las atracciones serán los siguientes:

- De lunes a viernes: de 16:00 a 22:00 horas todas las atracciones y casetas.
- Sábados, domingos y vísperas de festivos: churrería, bocatería y similares de 8:00 a 15:00; atracciones de 11:00 a 15:00; todas las atracciones y casetas de 16:00 a 12 de la noche.
- La música se quitará a las 21:30 de lunes a viernes; y los sábados y domingos a las 23:00 horas.
- La música se quitará el 16 y 17 de junio durante los conciertos.

- Estos horarios se incrementarán los días de programación festiva, hasta la 1:00 de la madrugada, o finalización de la programación festiva municipal.

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatzaileek proposamen bat bakarrik aurkeztu ahal izango dute.

Proposamena Pegorako bulegoetan aurkeztuko da, hurrenez hurren zenbakitako BI kartazaletan, eta haietako bakoitzean, aurrealdean, honako datuok azaldu behar dira:

Kontratuaren izena.
Banakako enpresaburuaren edo eskaintza aurkezten duen sozietatearen izena.
IFKren zenbakia, edo, hala badagokio, NANaren zenbakia
. Helbidea.
Faxa
Telefonoa
e-maila
Eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenak eta nolatan egiten duen (bere izenean, administratzaile bakar gisa, ahaldun gisa...).

Kartazalak, nahitaez, lizitatzaileak edo hura ordezkatzen duenak sinatu beharko ditu.

Kartazalekin batera **PROPOSAMENA ENTREGATU IZANAREN EGIAZTAGIRIA** deritzon agiria aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

1. KARTAZALA (GAITASUNA ETA KAUDIMENA)

Honako dokumentazio hau izango du barruan:

- Parte hartzen duenaren NANaren fotokopia edo haren ordezkariarena. Beste pertsona edo entitate baten ordezkari legez jardun izanez gero, notario-ahalordea.
- Eskaintzailea pertsona juridiko bat bada, eraketa-eskritura edo aldaketa-eskritura, merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatua eta identifikazio fiskaleko zenbakiarekin, aplika dakiokeen merkataritza-legeriaren arabera inskripzioa eskatu ahal zaionean. Betekizun hori bete beharrekoa ez bada, jarduteko gaitasuna eratze-agiriaren edo eskrituraren bidez, estatutuen bidez edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da, jarduera erregulatzeko arauak bertan jasota, eta, hala dagokionean, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak aipatzen dituen kontratatzeko debekuetako bat ere ezarri ez zaiola dioen erantzukizunpeko adierazpena. Bertan berariaz adierazi behar du egunean dagoela indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharretan eta Gizarte

7. PRESENTACION DE PROPOSICIONES

Cada licitador sólo podrá presentar una única proposición

La proposición se presentara en las oficinas de Pegora del Ayuntamiento, en DOS sobres numerados correlativamente, especificando en el anverso de cada uno de ellos los siguientes datos:

Denominación del contrato
Nombre del empresario individual o denominación de la Sociedad que presenta la oferta.
Nº de CIF o, en su caso, del DNI
Domicilio, a afectos de notificaciones

Fax
Teléfono
e-mail
Nombre y apellidos de quien firme la proposición y el carácter con que lo hace (en nombre propio, como Administrador Único, como Apoderado…).

Los sobres deberán estar, necesariamente, firmados por el licitador o persona que le represente.

Junto con los sobres deberá presentarse, debidamente cumplimentado, el documento denominado **JUSTIFICANTE DE ENTREGA DE PROPOSICIÓN.**

A) EL SOBRE 1 (CAPACIDAD Y SOLVENCIA),

Contendrá la siguiente documentación:

- Fotocopia del Documento Nacional de Identidad del participante o su representante. Además, en el caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, poder notarial.
- Cuando el oferente sea una persona jurídica, escritura de constitución o modificación, en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil y número de identificación fiscal, cuando la inscripción fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional, en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro Oficial.

- Declaración responsable de no estar incurso el licitador en las prohibiciones de contratar recogidas en el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, que comprenderá expresamente la circunstancia de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

Segurantzarekikoetan (eredua I. ERANSKINean).

- Proposatzailea zer den egiaztatuko duen agiria: azokalari industriala edo azokalari elkartea

seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes (se adjunta modelo en el ANEXO I).

- Documento que acredite la cualidad de industrial feriante o asociación de feriantes del proponente.

B) 2. ZENBAKIKO KARTAZALA (ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK, MATEMATIKAKO FORMULEN BITARTEZ NEURTZEKOAK).

Contendrá la siguiente documentación:

- Proposicicón ajustada al modelo que se adjunta como ANEXO II
- Barraka motak —zerrenda— eta kokapen-proiektua

B) EL SOBRE Nº 2. (CRITERIOS DE ADJUDICACION EVALUABLES MEDIANTE FORMULAS MATEMATICAS)

Contendrá la siguiente documentación:

- Proposicicón ajustada al modelo que se adjunta como ANEXO II .
- Relación del Tipo de atracciones a instalar y proyecto de ubicación.

8. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA PROPOSAMENEK BETE BEHARREKO GAINERAKO ESKAKIZUNAK.

Eskaintzak lizitazio-iragarkian ezarritako epe horren barruan aurkeztuko dira.

Interesdunen proposamenek baldintza-agiri honetan ezarritakorekin bat etorri behar dute. Proposamenak aurkezteak berekin dakar enpresariak baldintza-agiri honetako baldintza guztien edukia oso-osorik onartzea.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta hori bermatzeko behar diren bitartekoak ezarriko dira harik eta proposamenok jendaurrean ireki arte.

Lizitatzaileak ezingo du aurkeztu proposamen bat baino gehiago.

8. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LAS PROPOSICIONES Y DEMÁS REQUISITOS DE LAS MISMAS.

Las proposiciones se presentarán dentro del plazo fijado en el anuncio de la licitación.

Las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a lo previsto en este pliego y su presentación supondrá la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones.

Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento en que deba procederse a la apertura en público de las mismas.

Cada licitador no podrá presentar más de una proposición.

9. DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK ZABALTZEA.

a) 2. KARTAZALA zabaldu baino lehen, mahaiak 1. KARTAZALAren edukia kalifikatuko du. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsez bat ikusiz gero, hiru eguneko epea emango da, kontratazio-mahaiari bidalitako idatzi bidez, proposatzaileek hura zuzendu edo konpon dezaten.

b) Aurreko jarduerak egin ondoren, 2. KARTAZALA (matematikako formula bidez neurtu daitezkeen irizpideak) zabaltzeko ekitaldi publikoa aurrez lizitazio-iragarkian adierazi izan den lekuan eta egunean irekiko da..

9. APERTURA DE LA DOCUMENTACIÓN Y DE LAS PROPOSICIONES.

a) Previo al acto público de apertura del SOBRE 2, se calificará por la Mesa el contenido del SOBRE nº 1. Si se observasen defectos subsanables en la documentación presentada, se otorgará un plazo de tres días para que los proponentes las corrijan o subsanen ante la propia Mesa de Contratación.

b) El acto público de apertura del SOBRE 2 (Criterios evaluables mediante fórmulas matemáticas) se celebrará en el lugar y día que previamente se haya señalado en el anuncio de licitación.

10. BAIMENA FORMALIZATZEA.

Aurreko guztia egin ondoren, mahaiak baimenaren adjudikazio-proposamena egingo dio alkateari, eta, baimena ematea erabaki ondoren, adjudikaziodunari

10. FORMALIZACIÓN DE LA AUTORIZACIÓN.

Realizadas las actuaciones anteriores, la Mesa propondrá al Alcalde la adjudicación de la autorización que, una vez acordada, será notificada

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

jakinarazi eta hark ondoko baldintza hauek bete behar ditu:

a) Behin-betiko bermea uztea, 12.000 eurokoa.

b) Eskaini duen kanona ordaintzea.

c) Udaleko Kultura Sailaren bulegoetan entregatzea Baldintza Orrien 11.13 atalean eskatutako egiaztagiriak.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela dioten ziurtagiri frogagarriak entregatzea.

Lehen adierazitako tramite horiek egin ondoren, eta barraka-gunea okupatu baino lehen, baimena formalizatu egingo da.

al adjudicatario, el cual, deberá realizar las siguientes actuaciones:

a) Constituir una garantía definitiva por importe de 12.000 €.

b) Abonar el canon ofertado.

c) Entregar en las Oficinas del Área de Cultura del Ayuntamiento los justificantes exigidos en el punto 11.13 del Pliego.

d) Entregar certificaciones acreditativas de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la seguridad Social.

Realizados los trámites antes indicados, y siempre antes de la ocupación del recinto ferial, se procederá a la formalización de la autorización.

11. BAIMENDUTAKOAREN BETEBEHARRAK.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak ezarritako betebeharrez gain, baimenduak eskubide eta betekizun hauek dauzka:

1. Kanona ordaintzea.

2. Barraketako prezioek ezingo dira inolaz ere zenbateko hauetatik gorakoak izan:

- Umeen barrakak, fitxa bakoitza: 1,9 €. Umeentzako bonuak, 6 bidaia: 7,00 euro
- Helduen barrakak, fitxa bakoitza: 1,9 €. Helduentzako bonua, 6 bidaia: 7.50 euro.
- Ekainaren 21ean (Umeen Eguna) barrakak 0,9 €.

Lizitatzaileek zenbateko hori merkatu dezakete beren eskaintzetan.

3. Zaindu egin behar du barrakak eta etxolak jartzeko utzi zaion lekua. Leku horretan anbulantzia bat sartzeko behar den lekua utzi behar da, hala behar izanez gero. Lekuak neurri hauek ditu: Txaltxa Zelaiko plazan, Jubilatu Etxearen gainean: 15 x 80 m. Epaitegi ondoan: 13 metro zabal x 50 metro luze (farola artean, bi kenduta). Barrakak eta etxolak epaitegiko hormatik lau metrora jarri behar dira. Ibilgailuak sartzeko lekua eta maniobrak egiteko lekua utzi behar da.

4. Barrakak egongo diren lekuan erabat debekatuta dago animaliak bizirik erakutsi, saldu eta zozketatzea.

5. Megafonia, bozgorailuak, irratiak, musika-tresnak eta beste megafonia-aparatu batzuen erabileraz:

11. DEBERES DEL AUTORIZADO

Además de los establecidos en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas, son derechos y obligaciones del autorizado:

1. Pagar el canon.

2. Los precios de las diversas atracciones no podrán superar en ningún caso las siguientes cantidades:

- Atracciones infantiles, ficha individual 1.9 €. Abono de 6 viajes infantiles 7'00 €.
- Atracciones de adultos, ficha individual 1,9 €. Abono de 6 viajes de adultos 7,50 €.
- El día 21 de junio (día infantil) las atracciones costarán 0,9 €.

Estos precios podrán ser mejorados por los licitadores en sus ofertas.

3. Respetar el espacio que le ha sido concedido para el aprovechamiento de la feria de atracciones y casetas. El mismo deberá contar con los oportunos pasos que permitan la circulación de una ambulancia en el caso de ser necesario. En la plaza Txantxa Zelai junto al Hogar del Jubilado, las medidas son 15 m x 80 m; y en la Plaza Txantxa Zelai junto al juzgado el espacio destinado es el de 13 metros de ancho X 50 metros de largo (entre farolas, quitando solamente dos). Las atracciones dejarán cuatro metros a la pared del Juzgado y permitirán el acceso de vehículos y su maniobra, caso de ser necesario.

4. Queda terminantemente prohibida la exhibición, venta y rifa de animales vivos dentro del recinto festivo.

5. Sobre el uso de megafonía, altavoces, radios, instrumentos y otros aparatos megafónicos:

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

- Barraketan megafonia bakarra egongo da, barraketako batean jarriko dena. Megafonia non jarriko den esan egingo zaie, bai Udaltzaingori, bai Eibarko Udaleko Kultura sailari.

- Megafoniak ez du 75 dbAtik gorako zaratarik gainditukо.
- Barrakak dauden tokian erabat debekatuta dago bozgorailuak, sirenak eta abar erabiltzea baldintza-orri honen 6. atalean adierazitako ordutegietatik aparte.
- Bete egin behar dituzte Udaltzaingoak eta Eibarko Udaleko Kultura sailak musika-ekipoen bolumenari buruz eta haiek kentzeari buruz emandako agindu oro.
- Ikuskizunen bat egiten denean eten egingo da musika eta ez da bozinarik eta sirenarik erabiliko.

- Barraka-esparru osoan musika-iturri bakarra egongo da, toki batetik kontrolatukoa. Megafonia horren kontrola Udaltzaingoari eta Kultura sailari jakinaraziko zaie. Musika eskaintzaileak berak aukeratuko duen musika-irrati batekoa izango da, musika-programazioaren % 50 gutxienez euskaraz duena

- La megafonía será única para todo el recinto ferial y se colocará en una de las atracciones. Esta ubicación de la megafonía se comunicará tanto a la Policía Municipal como al Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Eibar.
- La megafonía no podrá superar 75 dbA.

- Queda terminantemente prohibido en todo el espacio ferial, el uso estridente de altavoces, sirenas, etc., a partir los horarios expuestos en el punto 6.
- Acatarán las órdenes en cuanto a volumen y apagado de equipos que dispongan la Policía Municipal y el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Eibar.
- Se suspenderá la emisión de sonido y utilización de bocinas y sirenas cuando así lo requiera la celebración de algún espectáculo u otra causa.
- La música será la misma para todo el recinto ferial y se controlará desde un solo punto. El control de esa megafonía se comunicará tanto a la Policía Municipal como al Departamento de Cultura. La música será la que provenga de una radioformula musical que elija el oferente, que garantice al menos un 50 % de su programación musical en euskera.

6. Debekatuta dago barraka-esparruko alde guztietan lurrean zuloak egitea. Eusteko lekua zabalduko duten egurrezko pieza batzuen bidez jarriko dira euskarriak, lurrean aztarnarik gera ez dadin. Adjudikazioduna bera izango da egiten dituen kalteen erantzule eta, hortaz, behin betiko bermearekin erantzungo duena.

6. Queda prohibido cavar o perforar en cualquier zona del espacio festivo. Los apoyos de los soportes serán a través de piezas de madera que ensanche la superficie del apoyo a fin de evitar huellas residuales en aquél. El adjudicatario responderá con la garantía definitiva de los desperfectos que ocasionase.

7. Barraka guztiak edukiko dira apaindura eta txukuntasun baldintza egokitan. Barraketan ez da uzten irudi edo eduki sexistako objekturik saltzen, eta ezta era horretako publizitaterik egiten ere. Udalak barraka-esparruan dagoen edozein barraka edo etxola ixteko ahalmen osoa du instalazio horrek ez badu betetzen aurreko baldintza hori.

7. Toda atracción deberá presentar buen aspecto de ornato y decoro. No se permitirán la venta de objetos con imágenes o contenido sexista en las instalaciones de la feria. El Ayuntamiento tiene la facultad para clausurar cualquier atracción o caseta que se ubique en recinto ferial, si a juicio del mismo, la mencionada instalación no cumple con las condiciones de este punto.

8. Adjudikazioduna bera zango dira barraka-gunean dauden erabiltzaileek edo pertsonek izan ditzaketen istripuen edo kalteen erantzule, instalazioen baitan sor daitezkeen istripu eta kalteen erantzule, alegia. Horretarako, erantzukizun zibileko poliza kontratutako dute, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituen 389/1998 Dekretuaren 3. ataleko 5. zenbakiaren arabera (EHAAn 1999ko urtarrilaren 21ean argitaratua).

8. El adjudicatario será responsable de los accidentes o daños que puedan sufrir los usuarios o personas que se hallen en los terrenos del espacio festivo o ferial y que se produzcan como consecuencia de las instalaciones. Para ello, concertarán póliza de seguro de responsabilidad civil conforme al artículo 3, punto 5 del Decreto 389/1998, de 22 de diciembre, por el que regulan los seguros de responsabilidad civil exigibles para la celebración de espectáculos públicos y actividades recreativas, publicado en el B.O.P.V. el 21 de enero de 1999.

9. Argindarraren hornidura adjudikaziodunaren kontu geratuko da; eta horren gastuak beraien kontura geratuko dira. Adjudikaziodunek ordaindu behar dituzte instalazio elektrikoak jartzeak, ustiatzeak eta kentzeak ekartzen dituzten gastuak. Instalazio horiek egoera onean edukitzeko ardura ere beraiena izango

9. El suministro de energía eléctrica correrá a cargo del adjudicatario, siendo los gastos por cuenta de los mismos. Los adjudicatarios deberán costear los gastos que se deriven de la instalación, montaje, explotación y desmontaje de las instalaciones eléctricas, así como de su conservación en buen

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

da. Bestalde, bete egin behar dituzte baimendutako jardueran aritzeagatik dauzkaten obligazioak: administrazio- eta lan-alorreko obligazioak eta arlo fiskalekoak, alegia. Mahuka elektrikoak jartzean kontuan hartu behar da barraketatik dabilen jendeari ez diotela inongo trabarik ekarri behar; hortaz, kable-babes homologatuak erabili behar dira. Leku hartara sartzeko hiri-altzariak aldi baterako kendu beharra izango balitz, kostuak adjudikaziodunaren kargu geratuko dira (hesiak edo barandak kendu eta berriro ipini eta soldatu; arrapalak kendu eta berriro jarri…).

10. Kontratu hau Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluak ezartzen duen hizkuntza bien ofizialtasun araubideari lotzen zaio, eta euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen arauak ezarritakoaren esanera dago, baita azken lege hori garatzen duten araudien esanera ere, besteak beste Eibarko Udalak berak duen Euskararen Erabilerarako Planak dioenaren esanera. Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira, eta ondoan euskarazko azalpen-mezua izango dute. Piktograma baten bidez ematerik ez badago, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak eta ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez, betiere Administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

11. Debekatuta daude hustubide-mota guztiak.

12. Karabanak eta atoiak Udaleko bulego teknikoak esandako lekuan jarri behar dira. Ez da utziko karabanak barraka-esparru barruan jartzen.

13. Kontratua izenpetu aurretik, adjudikaziodunak han jarriko diren barrakadun guztien zerrenda ekarri behar du eta bakoitzaren dokumentazio hau:

- Gizarte Segurantzako altaren kopia.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia eta ordaindutako azken ordainagiriarena.
- Barraka instalatzeak, estatuko, autonomia erkidegoko edo udal agintaritzaz aparteko beste erakunde batzuen ikuskaritza-araudi bereziak edo baimenak betetzea eskatzen badu, barrakadunak baimen guztiak behar bezala eta arauz eduki behar ditu, eta ez du izango ezer martxan jartzerik betekizun edo baldintza horiek aurretik betetzen ez baditu. Baimen horiek kontratua izenpetu aurretik aurkeztu behar dira udaletxean.

- Relación de trabajadores y trabajadoras que prestarán sus servicios en las distintas atracciones y casetas a instalar en la feria.
- Certificado de Delitos de Naturaleza Sexual de las personas que prestarán sus servicios en las distintas atracciones y casetas a instalar en la feria.

estado, o los derivados de las condiciones a que se refiere el presente Pliego, y cumplir las obligaciones de carácter administrativo, fiscal y laboral que correspondan por el ejercicio de la actividad autorizada. Las mangueras eléctricas deberán colocarse de manera que no generen ningún tipo de obstáculos para las personas que transiten por la feria, utilizando pasacables homologados. De igual manera se harán cargo de los costos que supongan la modificación provisional del mobiliario urbano para el acceso, como por ejemplo desmontaje y posterior soldado de vallas o barandillas, las rampas…

10. Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre otro el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Eibar. Según la cual los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general se harán mediante un pictograma, acompañado de un mensaje explicativo en euskera. Si no resulta posible hacerlo mediante un pictograma, se harán en euskera cuando se trate de mensajes conocidos y comprensibles. Si los dos casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad de la Administración.

11. Queda prohibido cualquier tipo de desagüe.

12. Las caravanas o remolques irán ubicados en los lugares que la Oficina Técnica del Ayuntamiento determine para ello. No se permitirán caravanas en la zona destinada a recinto ferial.

13. El adjudicatario deberá presentar ante el Ayuntamiento, antes de la firma del contrato, la relación de feriantes que se van a instalar en el recinto acompañada de la siguiente documentación por cada uno de ellos:

- Copia del alta en la Seguridad Social
- Copia del seguro de responsabilidad civil y del último recibo abonado
- Si la instalación de la atracción hubiera de sujetarse a normativas especiales de inspección o autorización de otros organismos estatales, autónomos o ajenos a la autoridad municipal, deberá contar el feriante con los permisos y autorizaciones en regla, no pudiendo dar comienzo a su funcionamiento sin cumplir previamente tales requisitos. Los citados permisos y autorizaciones deberán presentarse ante el Ayuntamiento antes de la firma del contrato.
- Relación de trabajadores y trabajadoras que prestarán sus servicios en las distintas atracciones y casetas a instalar en la feria.
- Certificado de Delitos de Naturaleza Sexual de las personas que prestarán sus servicios en las distintas atracciones y casetas a instalar en la feria.

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

14. Ekainaren 24an eta 25ean barrakak geratu egin behar dira su-festak edo suzko erroberak hasi baino bost minutu lehenago edo piroteknia-etxeak lehenengo abisua ematen duenean. Klausula hori nahitaez bete behar da. Barrakak itxi egingo zaizkie hori betetzen ez dutenei.

14. Los días 24 y 25 de junio, cinco minutos antes de iniciarse los fuegos artificiales, o en su defecto al primer aviso de la pirotecnia, es obligación de los feriantes el parar sus atracciones. Esta cláusula es de obligatorio cumplimiento. A aquellos feriantes que no la cumplan se les cerrará la atracción.

15. Barraka-esparrua eta jai-esparrua oso gertu daudenez, antolatzaileek hala eskatzen dutenean megafonia-ekipoak itzali egingo dira eta ez da bozinarik edo tinbrerik erabiliko. Hori guztia, jai-esparruko ikuskizunekin eta ekitaldiekin interferentziarik izan ez dadin.

15. Dada la proximidad del recinto de la feria al recinto festivo, en los momentos que sean requeridos por los/as organizadores de la fiesta, deberán apagar los equipos de megafonía y abstenerse en la utilización de cualquier tipo de bocina o timbre, con la finalidad de no provocar interferencias con las actividades que se estén ejecutando.

16. Zorua kaltetzen bada adjudikazioduna da horren erantzulea eta zorua konpondu egin beharko du.

16. El adjudicatario será la responsable del posible deterioro del pavimento, debiendo proceder a su arreglo.

17. Adjudikazioduna bera da zoruaren garbiketaz arduratu behar dena. Hartu beharreko neurriak hartu beharko ditu instalaziotik edo etxoletatik olio- edo koipe-orbanik zorura isuri ez dadin.

17. El adjudicatario responsable de la limpieza del pavimento. Deberán tomar las oportunas medidas para prevenir las posibles manchas de aceite, grasa, etc... que pudieran desprenderse de las atracciones y casetas.

18. Txaltxa Zelaiko barraka-esparrutik barrakak eta etxolak erretiratzen direnean Eibarko Udaleko teknikariek hara joan eta ikuskapena egingo dute. Ikuskapen horretan adjudikaziodunaren ordezkariek har dezakete parte, aurretik aipatu diren atal bi horien inguruko txostena egin ahal izateko. Txostena ezezkoa balitz, Eibarko Udalak behin betiko fidantzatik kenduko du egin behar diren konponketen zenbatekoa.

18. Una vez retiradas las atracciones y casetas ubicadas en el recinto ferial de Txantxa Zelai, se procederá a una inspección por parte de técnicos del Ayuntamiento de Eibar, en la cual podrán participar representantes del adjudicatario, con la finalidad de elaborar informe sobre los dos puntos anteriores. En el supuesto de que el informe fuera negativo, el Ayuntamiento de Eibar descontará de la fianza definitiva el importe de las reparaciones a realizar.

12. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Arau-hausteak arinak, astunak eta oso astunak dira.

Arau-hauste arinak:

- Atzerapenak adjudikaziodunak dituen obligazioak betetzean.
- Aplikazio orokorreko araudia eta, bereziki, Udalaren ebazpenak ez betetzea.
- Ez jartzea Eibarko Udalaren ikuskapenaren mendean.
- Astuntzat edo oso astuntzat berariaz sailkatuta ez dagoen beste edozein ekintza mota edo ez-egite.
- 75 dbA-tik gorako bolumena han jarritako megafonia-aparatuetan.
- Bozinaz, txirrinez edota megafoniaz zarata egitea, Untzaga Plazan ekitaldiren bat dagoenean eta zaratarik ez egiteko eskatu zaionean.

Arau-hauste arinek 200 eurora arteko zigorra izango dute.

Arau-hauste astunak izango dira:

- Bi arau-hauste arin egitea.

12. INFRACCIONES Y SANCIONES

Las infracciones se clasificarán en leves, graves y muy graves.

Serán infracciones leves:

- Los retrasos en el cumplimiento de las obligaciones del concesionario.
- El incumplimiento de la normativa de aplicación general y de las resoluciones del Ayuntamiento en particular.
- El no sometimiento a la inspección del Ayuntamiento de Eibar.
- Cualquier otro tipo de acción u omisión que no esté expresamente calificada como grave o muy grave.
- Superar el volumen de 75 dbA con los aparatos de megafonía instalados.
- La emisión de sonidos de bocinas, timbres y/o megafonía cuando se está ejecutando una actividad en la Plaza de Untzaga y haya sido requerido para ello.

Las infracciones leves serán sancionadas con multa de 200 euros.

Serán infracciones graves:

- La reiteración de dos infracciones leves.

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

- Emakidadunaren jarduerak instalazioen herri jabariari kalte egin edo hondatu egiten badu.
- Barraken esparru barruan animaliak bizirik erakutsi, saldu edota zozketatzea.
- Emandako herri-jabariaren ez-ohiko erabilera. Baimendutako jardueraz kanpo dagoen beste jarduera baten aritzea.
- Jardueraren ordutegiak ez betetzea, edo Udalak ezarritakoak ez betetzea.

Arau-hauste astunek 300 eurora arteko zigorra jasoko dute.

Arau-hauste oso astunak:

- Bi arau-hauste astun egitea.
- Herritarrekiko harremanetan errespetu falta, begiramen falta eta instalazioen osasungarritasun falta.
- Beste edozein, baldin eta bere ondorio edo garrantziagatik alarma soziala eragiten badu edo interes publikoaren aurka larriki egiten badu.
- Garbiketa-hondakinak, WC, harraskako hondakinak isurtzea hoditeriaren sarean.
- Eskainitako atrakzioen prezioak ez betetzea.
- Erabiltzaileen integritate fisikoan arriskuan jar dezaketen atrakzioen segurtasun-neurriak ez betetzea. Kasu horietan, adjudikaziodunak beharrezko ekintzak egin beharko ditu segurtasuna berrezartzeko, eta atrakzioa itxiko du baldin eta ez bada erabat bermatuta geratzen.

Arau-hauste oso astunek 600 eurora arteko zigorra jasoko dute.

13. BAIMENAREN SUNTSIARAZPENA

- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak ezarritakoez gain, baimena suntsiarazteko arrazoi dira:

- Atrakzioetako erabiltzaileen segurtasunari eragiten dioten arau-hauste astunak
- Kanona eta behin betiko bermea ezarritako epean utzi ez izana
- Plegu honen 11.13 puntuan exijitutako egiaztagiriak epe barruan aurkeztu ez izana

Suntsiarazpenak berekin ekarriko du behin betiko bermea konfiskatzea eta Udalari eragindako kalte-galerengatik ordaintzea bermearen zenbatekoa gainditzen duen zatian.

14. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

- La actuación del concesionario que dé lugar a la depreciación del dominio público la de las instalaciones.
- La exhibición, venta y/o rifa de animales vivos dentro del recinto festivo.
- El uso anormal del dominio público concedido. El ejercicio de la actividad distinta a la permitida.
- El incumplimiento de los horarios de la actividad, o, en su defecto, de los establecidos por el Ayuntamiento.

Las infracciones graves serán sancionadas con multa de 300 euros.

Serán infracciones muy graves:

- La reiteración de dos infracciones graves.
- La falta de respeto en el trato con los ciudadanos, la falta de decoro y salubridad en las instalaciones.
- Cualquier otra que por su trascendencia o importancia cree alarma social o contradiga con gravedad el interés público.
- El vertido de restos de limpieza, W.C., fregadera, en la red de alcantarillado.
- Incumplimiento de los precios de las atracciones ofertados.
- Incumplimiento de las medidas de seguridad de las atracciones que puedan poner en peligro la integridad física de los usuarios. En estos casos el adjudicatario deberá de realizar las acciones oportunas para el restablecimiento de la seguridad, cerrando la atracción en el caso de que ésta no quede totalmente garantizada.

Las infracciones muy graves serán sancionadas con multa de 600 euros y la extinción de la concesión.

13. RESOLUCION DE LA AUTORIZACION

- Además de las establecidas en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas, son causa de resolución:

- Los incumplimientos graves que afecten a la seguridad de los usuarios de las atracciones
- La falta de pago del canon y del depósito de la garantía definitiva en el plazo establecido
- La falta de presentación en plazo de los justificantes exigidos en el punto 11.13 del presente Pliego

La resolución conllevará la incautación de la garantía definitiva y el resarcimiento al Ayuntamiento de los daños y perjuicios ocasionados en la parte en que superaran el importe de la garantía.

14. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

Plegu honen arabera egiten den okupazio-baimenak administrazio-izaera izango du eta agirian jasota ez dagoen guztian, Administrazio Publikoen Ondarearen Legeari eta Tokiko Korporazioetako Ondasunen Erregelamenduari jarraitu zaie.

La autorización de ocupación que en base a este pliego se realice tendrá carácter administrativo y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en la Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas y el Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales.

15. ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

Kontratutik sor daitezkeen auzigaiak Administrazioarekiko Auzi jurisdikzioaren pean daude.

15 JURISDICCIÓN COMPETENTE

Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa.

KULTURA ALORREKO ZUZENDARIA
Sin: José Luis González.

EL DIRECTOR DEL AREA DE CULTURA
Fdo.: José Luis González

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

ANEXO I

DECLARACIÓN RESPONSABLE DE NO ESTAR INCURSO EL LICITADOR EN PROHIBICIONES DE CONTRATAR

……., con DNI nº …… en nombre propio o como (señalar las facultades de representación: administrador/a único, apoderado/a…), en representación de la empresa……, con domicilio en …….
Y C.I.F. nº ……

DECLARA

Que ni él, ni la empresa a la que representa, ni ninguno de sus administradores o representantes legales de la misma, se encuentran incursos en alguna de las prohibiciones para contratar con las Administraciones Públicas, señaladas en la Ley de Contratos del Sector Público.

Que él y la empresa a la que represente se halla al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, así como de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Eibar

Y para que conste y surta los efectos oportunos, firma la presente declaración responsable en …… a …… de …….. de ……

Fdo.:
Sello de la empresa

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

I ERANSKINA

ADIERAZPEN ARDURATSUA, KONTRATATZEKO DEBEKUAN SARTUTA EZ DAGOELA DIOENA

Nik.....jaunak/andreak.....zk.ko NANa dudan honek, nire izenean edo honako hauen ordezakari gisa (ordezkaritza-ahalmenak adierazi: ..... administratzaile bakar, ahalordedun...) ……..enpresa ordezkatuz..... (e)an egoitza duena,
eta..... zki.ko IFK.

HAUXE AITORTZEN DUT:

Ez ni, ez orobat nik ordezkatzen dudan enpresa eta enpresaren ezein administratzaile edo legezko ordezkari ere ez gaudela sartuta Administrazio publikoekin kontratatzeko inolako debekutan, zeinak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuaren 60. artikuluan adierazten diren.

Bai nik bai ordezkatzen dudan enpresak egunean ditugula indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak; baita Eibarko Udalarekin ditugun zerga-betebeharrak ere.

Eta horrela jasota gera dadin eta bidezkoak diren ondorioak sor ditzan, adierazpen arduratsu hau izenpetzen dut,
.....ko .....aren.....(e)an.

Sin:
Enpresaren zigilua

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c** Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809** **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

ANEXO II

PROPOSICIÓN AJUSTADA AL SIGUIENTE MODELO:

D.....,
con domicilio en .....,
CP..... , D. N. I. nº..... ., teléfono. . ..... en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de.....
con domicilio en..... ,
DECLARO:

1º) Que me comprometo a abonar un canon de ..... € al Ayuntamiento de Eibar si resulto adjudicatario de la concesión

2º) Que oferto los siguientes precios de las atracciones:

Atracciones infantiles:	Ficha individual	…….. €
	Abono 6 viajes	…….. €
Atracciones adultos:	Ficha individual	…….. €
	Abono 6 viajes	…… €

3º) Que oferto el siguiente precio de las atracciones en el "día infantil":

Precio de la ficha el día infantil …….. €

4º) Que conozco el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato , que expresamente asumo y acato en su totalidad.

En....., a.....de.....de 20.....

Firma

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**

II. ERASKINA

PROPOSAMENA,

…….jaunak/andreak
……helbidea duenak, eta
…….. PK, , ……NANa .,
…….telefono-zenbakia: . .....gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean, edo …..... izenean eta haren ordezkari legez,
……helbidea du ,
HAUXE DEKLARATZEN DUT:

Emakidaren adjudikazioa nire eskuetan geratuz gero Eibarko Udalari..... euroko kanon bat ordainduko diot.

2) Barraketako prezio hauek eskaintzen ditut:

Umeentzako barrakak: Fitxa bakoitza …….. €
Bonua (6 bidaia) …….. €

Helduentzako barrakak: Fitxa bakoitza …….. €
Bonua (6 bidaia) …… €

3) Barraketako prezio hauek eskaintzen ditudala “Umeen egunetarako”

Umearen fitxaren prezioa …….. €

4) Orobat deklaratzen dut ezagutzen ditudala administrazio-klausula berezien baldintza-orria eta kontratu hau arautu behar duen gainerako dokumentazioa, horiek denak neure egin eta berariaz onartzen ditudanak.

Lekua……Data:

Izenpea:

Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Firmado con sello electrónico de Organismo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **7366225649d883653b08730af37d2bf62839643c**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202300000809**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JOSE LUIS GONZALEZ BLANCO	**13/03/2023 20:43:19**